

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2010eko abenduaren 14a. VIII. urtea. 2.139. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



A. JIMÉZ

→ **Fin ari dira ibartarrak.** Euskal Herriko sokatira txapelketako bi jardunaldi izan dira asteburuan, bata Txantrean (Nafarroa) eta bestea Anoetan, eta bietan oso ondo aritu dira Ibarra A eta B taldeak sailkatu dira finalerako eta emakumezkoen lehen taldea ere sailkapen orokorreko bigarrena da. Gizonezkoen Ibarra B taldeak ezustekoa eman zuen Abadiño kanporatuaz. **6**

Banatu dituzte III. Galtzakomik lehiaketako sariak

12 urte beherakoen sailean Paulo Albisua, 12-18 urte artekoenean Pablo Azurra eta 18 urte gorakoetan Javier Navarro izan dira euskarazko komiki lehiaketako irabazleak **3**



III. Galtzakomik lehiaketako irabazle guztiak. R.C.

Abel Barriolak ezin izan du Juan Martinez de Irujo garaitu

Leitzarra 0-7 hasi bazen ere ezin izan zuen Lau t'erdiko txapela etxeratu; 22-17 bukatu zen partida **7**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maité

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 03 38

Gabonetako
opariak aukeratzeko
aholkatuko zaituztegu!

**Zorionak eta
Eguberri On!**



Eskualdeko lehen merkatu txikiak aste honetan, Ibarra eta Berastegin

Ibarratik Misio Taldeak antolatutakoak herenegun zabaldu zituen ateak; materiala biltzen ari dira bestean

Erredakzioa Elkartasuna

Gabon garaia, gutxien duten horiekin oroitzeko unea izaten da askotan. Hori dela eta, Eguberrietarako egun gutxi falta diren honetan, ohi bezala, elkartasun azokak antolatu dituzte eskualdeko zenbait herritan. Tartean, Ibarra eta Berastegin.

Ibarrako Misio Taldeak antolatuta, herenegun ireki zituen ateak Merkatu Txikiak. Eliza ondoko lokalean, igandea bitarte egongo da zabalik. Goizez 11:00etatik 13:00etara egongo da irekita, eta arratsaldez, 17:00etatik 20:30era. Lehendabiziko bi egunak igarota antolatzaileak gustura daude, izan ere, igandean bertan jende ugari hurbildu zen bertara. Bigarren eskuko materialaz gain, Indiatik ekarritako hainbat gauza ere topatu daitezke prezio oso onean. Esaterako, lepokoak, poltsak, zapiak, espezieak, intsentsua...

Merkatu Txikia amaitu ondoren, saldu gabe geratzen den materiala Tolosakora eramango dute. Gainera, aurren lokala hustu beharra daukate, gero margetzeko.

Abenduaren 24an abestera

Eguberri bezperan abesbatzakoe kin batera, etxez-etxe kantuan aterako dira Misio Taldekoak. Bertan biltzen den dirua ere, erakundearen proiektuak laguntzeko erabiliko dute. Abesteko txandak osatu ahal izateko, parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete email bidez edo telefonoz.

Gabonetako elkartasun postalak ere salgai

Ibarrako erakundeak postalak jarri ditu salgai bere proiektuak di-



Atzo arratsaldean 17:00etan ireki zituen ateak Ibarrako merkatu txikiak eta jende ugari hurbildu zen. E. EZEIZA

ruz lagundu ahal izateko. Bosgarren urtez jarri du abian ekimen hau, eta oraingo honetan ere, taldeko kide diren artistek eginiko lanak dira guztien eskura jarri dituztenak. Aurtengoa izango da gainera horretarako azken aukera. Datorren urtera begira berri batzuk egiteko asmoa baitute.

1997. urtetik ari da lanean Misio Taldea Hirugarren Munduko hiru herrialdetan martxan dituen hainbat proiektutan. Ondorengo herrialdeetako proiektuak laguntzen dituzte ibartarrek: Santa Rosa eta Baba (Ekueador), Suyapa (Honduras) eta Gujarat (India). Proiektu hauek alor oso ezberdinetakoak dira, hala nola, emakumearen promozioa, jangelak, erabilera anitzeko gelak eta etxebizitzaren eraikuntza, botiken erosketa eta banaketa, haurrak besotaketzea, alfabetatzea eta hezkuntza.

Postala hauek erakundearekin lan egiten duten artistek gauzatu dituzte. Posta bat eta sobre bakoitzaren prezioa euro batekoa da. Hauek erosteko interesa dutenek Eider Epelderekin harremanetan jarzea besterik ez dute. Honeta-

rako 659 48 65 11 telefono zenbakira deitu dezakete edo eidererepel-de@gmail.com helbidera idatzi.

Berastegin materiala biltzen dihardute

Beste behin ere Muñagorri eskolako Ingurumen Batzordeak Elkartasun Azoka antolatu du. Bertan bigarren eskuko materiala egongo da salgai. Honekin, «sobran dauden edo erabiltzen ez den materialari etenika ateratzea eta beste erabilera bat ematea dute helburu».

Egun hauetan materiala biltzen ari dira aparkaleku azpiko lokalean. Horretarako aukera

egongo da ostirala bitartean, 16:30etik 18:30era. Azoka asteburuan egongo da zabalik, hilaren 18tik 20ra bitartean. Lehendabiziko egunean 17:00etatik 19:30era; igandean 11:30etik 13:30era; eta azken egunean 16:30etik 18:30era.

Bigarren eskuko azoka honetan arropa, jostailuak, liburuak, altzariak... ari dira jasotzen egun hauetan antolatzaileak. Hori dela eta, «erabili daitekeen materiala eta txukun dagoena bakarrik» eramateko deia luzatzen dute. Jendeak eramaten dituen gauzei prezio «sinboliko» bat jarriko diete eta lortzen den dirua Etiopiako Wukro herrira bidaliko dute.

Irudia » Ibarra



INDIATIK BUELTAN

Ibarratik Misio Taldeko kideak Indian izan dira beste behin ere han aurrera eramaten ari diren proiektu batzuk ikusteko eta berri batzuk ezagutzeko. Urte asko daramatzate gobernu kanpoko erakunde honetako kideek Gujarateko herritarrei laguntzen baina orain, beste inguru batzuetara ere zabalduko dute beraien laguntza. HITZA

→ Laburrak

Paulo Iztuetaren azken lana eskuragarri da

BERASTEGI » Paulo Iztuetaren, *Berastegi* izeneko trilogia eskuragarri da. Berastegiko udal txeko idazkaritzan lortu daiteke hau 20 euroren truke. Azaroaren 13an Kultur Astearen baitan aurkeztu zuen lana soziologo, historialari eta filosofoak. Argitalpen honekin bere sorteria ardatz hartuta, horrenbeste urtetan landutako teoriak praktikara eramatea lortu du.

Mindegiagak 'El filtro' lana aurkeztuko du gaur

ALEGIA » Gaur Jon Mindegiaga ibartarrak *El Filtro*, *memorias de los refugiados vascos en Uruguay* izeneko bere liburua aurkeztuko du. Ekitaldia Alegia-ko Gaztetxean izango da 21:30ean. Lanak 1994. urteko abuztuaren 24ean Montevideon izandako sarraskia du ardatz; poliziak Josu Goitia, Luis Mari Lizarralde eta Mikel Ibañez euskal presoek estradizioaren aurka ari ziren ehunka lagun zauritu zituen eta bi gazte ere hil zituen, Fernando Morroni eta Roberto Facal.

'Tolosa munduan' hitzaldia Casinoan

TOLOSA » Mikel Telleria idazleak hitzaldia eskainiko du datorren astelehenean, hilak 20an. *Tolosa munduan* izango du izenburu hizketaldiak. Tolosako Casinon elkartearen izango da jardunaldia 20:00etan.

Itzietatik Zestoara Alpino Uzturreekin asteburuan

TOLOSA » Alpino Uzturrek abenduaren 19rako mendi irteera antolatu du. Txangoa Itzietatik hasi eta Zestoan bukatuko da. Andutz (612 m.) mendia igoko dute. Autobusaren irteera San Frantziskotik 08:00etan izango da. Iraupena lau ordukoa da, eta ondoren, Azpeitian bazkaria. Bazkideek autobusean joateko 11 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 13. Izena 943 65 27 89 telefonora deituta edo alpinouzturre@hotmail.com helbidean egin daiteke.

Sahara hizketagari izango da gaur Otsabi elkartearen

TOLOSA » Sanblaspioko gazte asanbladak antolatuta, bi saharar gaztek hitzaldia emanango dute Sahararen inguruan. Errefuxiatuen kanpalekuan bizi da hizlarietako bat eta lurralde okupatuetan bestea. Saioa 19:30ean izango da Otsabin.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Paulo Albisua, Pablo Azurra eta Javier Navarro izan dira maila bakoitzeko irabazleak

Rebeka Calvo Ibarra

Jende asko bildu zen pasa den ostiral iluntzean Ibarako Benito Izagirre kultur etxean Galtzaundi euskara taldeak Ibarako Udaleko laguntzarekin antolatzen duen komiki lehiaketako sari banaketara. III. Galtzakomik euskarazko komiki lehiaketa honetan parte hartzeko 100 lanetik gora jaso dituzte eta ia guztiak ostirala bitarte Kultur Etxean bertan dagoen erakusketan ikusi daitezke.

Lehiaketan hiru maila izan dira, urteroko moduan, eta sari banaketa gazteenetatik hasi zuten, 12 urtetik beherakoen sailetik, hain zuzen. Hauetan Gari Antxustegietxarte, Leyre Rey, Ibai Arana eta Aitzol Garrok bi komiki jaso zituzten sari moduan eta lan hauen «freskotasuna eta naturaltasuna» nabarmendu zituzten antolatzaileek. Marraketako materiala berri, Paulo Albisua gazteak jaso zuen.

12 eta 18 urte bitartekoen artean, aldiz, Markel Galbete jaso zuen bigarren saria, hau da 200 euro, eta Pablo Azurrak lehena, 400 euro.

Epaimahaiak Azurraren «aursardia» nabarmendu zuen eta baita «hutsuneak eta beteguneak



Jende asko hurbildu zen ostiral iluntzean Kultur Etxera sari banaketara. R. CALVO

Euskarazko komikiak Kultur Etxeko jaun eta jabe

nola landu dituen» ere. 18 urte gorakoen sailean bigarren Matxalen Lonbera izan zen, 400 euro jaso zituelarik, eta irabazlea Javier Navarro izan zen. Navarrok 600 euro jaso zituen eta ez da saritua izan den lehen aldia, gainera, orain bi urte ere, lehen edizioan, irabazi zuen eta.

Lonberak «lan nahiko sakona» aurkeztu zuen lehiaketara eta idatziei baino irudiei eman die protagonismoa. «Nire ustez istorioa irudiekin bakarrik ulertzen zen, eta nahigo nuen bakoitzak bere irakurketa egitea», azaldu zuen gazteak aurkezpenean.



Matxalen Lonberak bere lanaren inguruko azalpenak eman zituen. R. CALVO

Javier Navarro • 18 urte gorakoen saileko irabazlea

«Era honetako lehiaketek sortzeko bultzadatxoa ematen didate»

R. C. Ibarra

Siruliruli izeneko komikiarekin eskuratu du Navarrok Galtzakomik lehiaketaren hirugarren edizio sari nagusia. Tolosarrak istorioa aukeratzaren omen du lehenik eta ondoren, istorioak berak iradokitzen dio bidea komikia «borobildu» ahal izateko.

2008an 'Kriantzaaren problematikak' lanarekin irabazi zenuen, agurren bikote baten gora beherak ziren nagusi, oraingoan ere eguneroko pasarte bat izan duzu ardatz?

Sirulo arraina hartu nuen abiapuntutzat, umorez kontatutako historia da eta bai, betiko istorio bat da. Izena asmatutakoa da, noski, ez zitzaidan besterik bururatzaren...

Zein teknika erabili duzu?

Tinta egiteko lehenengo arkatzez egiten da marrazkia eta gero luma-muturrarekin pasa. Bukatzeko, azken xehetasunak egiteko, edizio digitala erabili dut.

Teknika aldatu duzu, beraz.

Aldatu egin nahi nuen, beti gauza bera egitean nazkatu egiten zara eta. Edizio digitala jorratzeko eta probatzeko ere aprobetxatu dut.

Bereziki lehiaketarako egindako lana al da 'Siruliruli'?

Bai. Denbora asko eman nuen zer egin nahi nuen erabakitzen. Niri asko gustatzen zait komikia, baina sortzeko garaian egia da era honetako lehiaketek bultzadatxoa ematen didatela, galdu egiten naiz bestela.

Iaz ere aurkeztu zinen, beraz lehiaketaren garapena ikusteko aukera izan duzu, zein maila ikusten duzu?



Antxustegietxarte epaimahaleko kidea eta Navarro irabazlea. R. CALVO

Lan txukunak ikusi ditut, oso txukunak batzuk, eta lan asko daude, baina jendeak gehiago animatu beharko litzateke. Azken finean denok dugu buruan istorioaren bat eta oso ondo marraztea ez da horren beharrezkoa. Komikia nahiko lur jota dagoen arloa da, eta euskaraz are gehiago, beraz, jendea animatu egin beharko litzateke.

Hiru gizonezko atxilotu dituzte gazte bat kolpatzeagatik

Larunbat goizaldean izan zen liskarra Villabonako taberna batean; ertzainak ere erasotu omen zituzten

Erredakzioa Villabona

Ertzaintzak hiru gizonezko atxilotu zituen larunbat goizaldean Villabonan ustez beste gazte bat kolpatzeagatik. Kolpeen ondorioz hortz batzuk hautsi zituzten Ertzaintza hitzetan.

Era berean, liskarra izan zeneko Villabonako tabernako jabea ere astindu zutela eta atxilotzera joandako ertzainak kolpatzen ere saiatu zirela adierazi du Herri-zaingo Sailak.

Taberna batean

Erasoa taberna batean izan zen larunbatean goizeko ordubatak aldera.

Ertzainek esandakoaren arabera, kolpatu zuteneko gaztea topatu zuten tabernaren kanpoan ahoa eta lepoa odoleztatuta zuten. Honek esan zien ertzainei tabernaren barruan zeuden hiru gizonezko izan zirela erasotzaileak.

Ertzainek tabernara sartzean gizonezko batek tabernako jabea lepotik helduta zuela ikusi zuten. Hauek gizonezkoarengana gerturatzera honek erasotu egin zituen eta baita beste gizonezko batek ere.

Ertzaintzak biak atxilotu zituen eta baita tabernan zegoen beste hirugarren bat hau ere susmagarria zelako.

Erasotutako gaztea, bere alde, Tolosako Asuncion klinikara eraman zuten.

Herrizaingo Sailak esandakoaren arabera, lehen bi atxilotuak «ohiko delitugileak» dira «jabetza kontrako delitu ugartan parte hartzeagatik», eta hirugarrenak, gazteagoa dena, ere aurkariak ditu.

USABALGO LASKORAIN IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEA

Bazkide-Lagun, agur:

Urteko Ohiko Batzar Orokorra dei egiten dizut, Euskal Herria plazako **TOPICen** burutuko dugunera. Batzar hau abenduaren 15ean, asteazkena, izango da arratsaldeko 19:00etan hirugarren deialdian. (lehen deialdia 17:30ean eta bigarrena 18:00etan).

Bertan jorratuko diren gaiak honako hauek dira:

- 1.-Aurreko urteko aktaren berri jaso.
- 2.-Partaide berriak Juntan eta Gurasoen lan-batzordeak
- 3.-Balanzea eta Aurrekontua.
- 4.-Azpiegitura berriak
- 5.-Kuotak eta finantzazio iturriak
- 6.-Ikasturteko egitasmoa eta emaitzak.
- 7.-Akta onartzeko bi kide izendatzea.
- 8.-Galdera eta eskeak

Tolosan,
2010eko abenduaren 11ean
Batzordeko Lehendakaria

Iragarki laburrak

SALGAI

■**Ekonomika.** Lakuntza markako ekonomika salgai. Clasicamodelokoa da. Egoera onean eta oso gutxi erabilia. Telefono zenbakia: 649 51 09 41.

ALOKAIRUA

■**Etxebizitza.** Borda edo baserri xume bat alokatuko genuke. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 634 45 91 10.

Mendeabaldeko Sahakoro Aalun hiriburuaren kanpoaldean milaka sahararek eraldi zuten Agdaim izaldirrikaren kanpalekuan Marokok sarraskia eragin zuten duela hilabete. Eraso horiek gaitzetsi eta salatzeko eta agi daitezela eskatzeko helburuz, Tolosaldea Sahararekin elkarkeste diotela itxialdia eragin zuten hainbat herritarrek ostia- eta larunbata arteko gaurerako Tolosako udaletxean. Giza Eskubideen Gauri bialtu zuten protesta ekintza hori burutzeko, 20 herritar inguruk igaro zuten gaur, eta Mendeabaldeko Sahararen egoeraz mintzatzeko erabili zuten unea. Protestekin jarraituz, larunbat eguerdian, Plaza Zaharrean elkarretaratzeko egin zuten 40 lagun inguruk Maroko Sahararik atlelonean. 1. YERABALLOKATZEA

Tolosaldeko Bilgune feministak deituta bil elkarratzatze egun dituzte azken egunotan, Cristina Estebanez eta Kristine Bosqueren erailaketa salatzeko. Barakaldon (Bizkaia) erail zuten Estebanez eta bere bikoteakide ohiak atxilotu du polizia. Bosque Arbonan (Lapurdi) bil zen. Azaroaren 25ean eraman zuten Balaioako erlebera, oso larri, eta astebera berandugio hil zen. Autopsiak erakutsi du litekeena dela itota hil izana, eta Paul Bosque senarra atxilotu du. «Hauxe da milaka erakumek Euzkalerrian bil zuten babesgabetasunaren egoeraren ondorio larria. Hauxe da gure herrietan dugun inestuzioke bideratutako lege, berdintasun batzorde eta neurriek ematen duten erantzuna», nabarmendu zituzten Bilgune Feministak. www.berria.com

Ostiral gauean estreinatzen Leidorren ibarrako Alurr dantza taldearen lan berria, Olnazez. Beterik zegoen aretoan harrera oso ona izan zuen lanaren estreinaldiak. Horrenadierazle, dantzariak eteneabe laso zituz-

ten txalo zaparradak. Pertsona baten barne borroka islatu zuen lanak, aurrera egin nahi eta ezin duenarena. Dena dela, olinazearen gaitetik, borroka horiek gairiditza lortzen du. Hori adierazteko, euskal dantza tradizioa

zionalak erabili dituzte, baina garaikiderantz joz, aurrekoetan baino gehiago gainera. Guztia zuzeneko musikaz lagundurik. Alert Beobide da zuzendaria eta koreografoa, eta berarekin batera, Katixa Aguirerartu da.

Berezi
Gabonetako eskaintzak!
NEURRI BEREZIAK
 Gazte eta emakumeentzako moda

Erremerentari kalea, 3 • Tolosa • Tel.: 943 674 965

Anoetan larunbatean egindako Txolarre Egunaren ondoren, Txolarre Irratiko ideak «Indarbertituta» daude. Loatzotz musika eskolako kideen emanaldiak bizi zituzten ekitaldiak eta «herria berotu zuen egunsenti hotzari aurre eginez». Bertso bazkaria Kuku elkartean egin zuten 60 bat lagun elkartu ziren «bazkari goxoa dastatzera». Kafean ostean eguneko «memento hungarikarienetako» bat izan zuten. Jon Miranda urteotako esatariari.

omenaldi xumea eskaini baitzieten bertarututakoek. Ondoren barre algaraz bete zen Kuku, Amaia Agirre et Aitzol Barandiaranek eskalinitako bertsosaldiekin. Eguzkia ezkutatua zen Kukutik irten eta anoaer zaitzenen trikitia lagun, herrian barnako trikitipoteoari ekin zietenen. Dozenaka pertsona izan ziren triki poteoan parte hartu zutenak, bazkariako eta gerora bertarututakoak. Gaztetxoan izan zuten eguneko azken seldialdia. Aretoa

erabat beterik zela, «gogoan liltzatuta gelditzeko moduko kontzertua eskalni ziguten Berri Txarrak taldeko ek». Txolarre iriatiak eskerrak eman dizkie bertaratu ziren guztiei, Txolarre Eguna ospatzera Joan ziren eskualdeko herritar guztiei, «eurak baltira Txolarren oinarri 10 urteak ospatuta, aurrera begira jartzeko unea deladiotte eta horretarako «akulu bilaina izango da larunbatean lasotako indar enperia». I. LERRAK LOSA-MITZA

«Giro onean» amaitu dute Tolosako Aldaba auzoan Kultur Asteburua. 45 lagun inguru elkartu ziren Intxur auzo elkartearen gaztaina jatea egiteko larunbat gauean. Aurretik, haurrek marrazkiekin apaldu zuten balioaitzeko gela, film bat ikusi eta txokolate beroa hartu ondoren. Ostiralean Edurne Malzek bideo baten eta argazkien bidez Indian hiru hilabetez bizitako esperientziaren berri eman zien auzokideei. HT24

Eskuratu BERRIArekin zure kioskoan

Xabier Letek 1974, urtean kaleratu zuen bakarkako lehen disko luzea, CD formatuan.

Denborarekin herri kanta bihurtu diren haren lanak entzun ahal izango dituzu bertan:

- **MAIZ** (Xabier Lete)
- **NAFARROA, ARRAGOIA** (Xabier Lete)
- **ONDAR GORRI** (X. Lizardi / Xabier Lete)

- **NI NAIZ** [Xabier Lete]
- **NAFARROA, ARRAGOA** [Xabier Lete]
- **ONDAR GORMI** [X. Lizardi / Xabier Lete]
- **SINISTEN DUT** [Xabier Lete / A. Valverde]
- **ALZATEKO JAUN** [Xabier Lete]
- **IZOTZ-ONDOKO EGUZKI** [X. Lizardi / Xabier Lete]
- **GEZA-ABEREA** [Xabier Lete]
- **SEHASKA KANTA** [Xabier Lete]
- **KONTRAPAS** [B. Etxepare / Xabier Lete]

*"Sinisten dut
hartuko nauen lur hortatik
landare berriak sortuko direla"*

Xabier Lete oroitzuz

HARPOEDUNENTZAT OHARRA

Nahikoa izango duzue 943-30 43 45 telefonora deitzea edo "harpidetza@berria.info" helbidera idaztea eta **5 € ren truke etxean lasoko duzue CDa.**

Kirolak

↓ Emaizak

PILOTA

LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

Finala	
Abel Barriola	17
Juan Martinez de Irujo	22

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

X. Galarraga-Iruretagoiena	12
Zazpi-Itturri	22
Hernani 1	10
Urdanpilleta-Aburuza	22
Hernani 2	16
Maiza-Elustondo	22
Ozkarbi 1	20
Senperena	22
Egiguren-Albisu	22
Lagunak	11
Arratibel-Perez	10
Zumaia	22
X. Urbieteta-Zinkunegi	20
Zazpi-Itturri	22
Mundarro	17
Beñat Zabala (Intxurre)	22

SASKIBALOI

LEHEN MAILA

Hamargarren jardunaldia	
Mikeldi	77
Take Bide Bide Ibiza	71

Saikapena

1. Fundacion Baskonia (8-2);
2. Lizuan.com (7-3); 3. Goierri
(6-4); 7. Bide Bide Ibiza (4-6).

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO

MAILA	
14. jardunaldia	
Aloña Mendi	1
Tolosa	2

Saikapena

1. Hernani (32 puntu);
2. Anaitasuna (31 puntu);
3. Pasajes (31 puntu);
10. Tolosa (19 puntu).

ERREGIONAL PREFERENTEA

13. jardunaldia

Hamaikak bat	2
Tolosa 'B'	2
Elgoibar	3
Intxurre	0

Saikapena

1. Urola (27 puntu); 9. Tolosa
'B' (17 puntu); 16. Intxurre (6
puntu).

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

Lauburu Ibarrek atsedenaldua
eduki du.

NAZIONAL B MAILA

Hamargarren jardunaldia	
Laskorain Ikastola	7
Clinica Dental Aldaz	2
Jarrilleros	2
Irish Pub Sheperd	3
Transportes Lakunza	6
La Bellota	2

Saikapena

1. Laskorain ikastola (31 p.);
2. Concepto Createch (31 p.); 3.
Bilbo (29 p.); 7. Transportes
Lakunza (17 p.)
11. Irish Pub Shepherd (13 p.)

ARRAUNA

FEDEREZIO TROFEOA,
BATELAK, TOLOSAN

Neskak (Infantil-kadeteak)

1. Tolosaldea A	5:20"
3. Tolosaldea B	+09.90
7. Tolosaldea C	+26.87

Mutilak (Infantilak)

1. Hibaika A	5:14"
2. Tolosaldea A	+04.59'
6. Tolosaldea B	+30.72'
8. Tolosaldea C	+46.08'

Mutilak (Kadeteak)

1. Sanpedrotarrak B	06:19"
4. Tolosaldea A	+05.40'
6. Tolosaldea B	+22.57'
12. Tolosaldea C	+56.56'

Ibartarrak maila onean



Euskal Herriko sokatira txapelketaren jardunaldia jokatu zen igandean Anoetako frontoian. A. IMAZ

Ibarra A eta Ibarra B finalerako sailkatu dira gizonezkoetan; emakumezkoetan lehen taldea bigarren dago

Asier Imaz Anoeta

Euskal Herriko sokatira txapelketaren bi jardunaldi jokatu ziren asteburuan, bata Txantrean (Nafarroa) eta bestea Anoetan. Gizonezkoak 300 kilotan aritu ziren eta emakumezkoak 250ean. Ibarrrako lau taldek hartu zuten parte jardunaldi hauetan.

Finala, hilaren 18an

300 kilotan Ibarrrako bi lauko taldeak Berriozarren jokatu den finalerako txartela lortu zuten asteburuan. B taldeak eginiko lana azpimarratu behar da, ezustekoa eman baitzuen Abadiño kanpoan

↓ Goma gaineko lauko sokatira txapelketa

LEHEN JARDUNALDIA

GIZONEZKOAK, 300 KILOTAN

Lehen Multzoa
1. Ibarra A (7 puntu); 2. Berriozar (6 puntu); 3. Amaiur A (5 puntu).

Bigarren Multzoa.

1. Amaiur B (7 puntu); 2. Sokarri B (6 puntu); 3. Abadiño (5 puntu); 4. Ibarra B (4 puntu).

EMAKUMEZKOAK, 250 KILOTAN

1. Amalur (6 puntu); 2. Ibarra A (4,5 puntu); 3. Badaiotz (4,5 puntu); 6. Ibarra B (puntu 1).

utziak. 250 kilotan ez da finalik jokatu, sei taldek hartu baitute parte lehian. Hala eta guztiz ere, hiru jardunaldi jokatu dituzte, eta irabazlea, puntu gehien lor-

BIGARREN JARDUNALDIA

GIZONEZKOAK, 300 KILOTAN

Lehen Multzoa
1. Ibarra A (16 puntu); 2. Berriozar (14 puntu); 3. Amaiur A (12 puntu).

Bigarren Multzoa.

1. Sokarri (13 puntu); 2. Amaiur B (11,5 puntu); 3. Ibarra B (10 puntu).

EMAKUMEZKOAK, 250 KILOTAN

1. Amalur (12 puntu); 2. Ibarra A (9 puntu); 3. Badaiotz (9 puntu); 6. Ibarra B (2 puntu).

tzen dituen izango da. Oraingoan, Ibarra A bigarren postuan aurkitzen da eta Ibarra B seigarren. Maila honetan Amaiurko laukoa da nagusi.

Hilberriak

PELLO REZOLA
ESKISABEL

Une latz hauetan
gure besarkadarik haundiena
familiarentzat.

Zumardi Ikastetxeko irakasle, ikasle eta gurasoak.

Amezketan, 2010eko abenduaren 14a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona ikasleak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider gareniz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena erabazteko izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

zuneko emakumezkoen 8 eta kadeteen mailako 14 irten ziren Oriara. Nesketan gainera, etxekoek A taldeak irabazi zuen estropada, bigarrenari lau segundo atereaz. Mutiletan, infantiletan A taldeak bigarren egin zuen. SARA GOMEZ

- Kontu zenbakia:



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** *Ni ere pertsona* SOS Arrazakeriaren eskutik, ostirala bitarte, Kultur Etxean.
- **Tolosa.** *Emakumea, etorkina, bizilaguna* SOS Arrazakeriaren eskutik, Kultur Etxean, ostirala arte (18:00-20:00).
- **Villabona.** *Gureak ere badira* adin txikiko horiek erakusketa, SOS Arrazakeriaren eskutik ostirala arte Villabonako Aljibean.

HITZALDIAK

- **Alegia.** Jon Mindegiaagak hitzaldia emango du berak idatzitako *El Filtro* liburuaren inguruan, 21:30ean, Gaztetxeak bere urteurrena ospatzeko antolatu dituen ekitaldien baitan.
- **Tolosa.** Sanblaspiko gazte asanbladak antolautu, bi saharar gaztek hitzaldia emango dute Sahararen inguruan. Errefuxiatuen kanpalekuan bizi da hizlarietako bat eta lurralde okupatuetan bizi da bestea. So-lasaldia 19:30ean izango da Otsabiko lokalean.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-nen eta iritzien erantzukizunik.


Agurak



Urte askoan!

Gaur 84 urte Joxepa. Jarraitu zaren bezain jator eta umoretsu izaten.

Alegia



ARAZOAK EMATEN ZITUEN IZEIA BOTA DUTE

Alegiako Udalak Larraitz auzoan zegoen izei gorria bota du. Teknikoen arabera, zuhaitza okertzen ari zen eta bere sustraiek arazoak sortzen zituzten ur kanalizazio eta hustubideetan. Orain lekua txu-

kunduko dute eta haritz bat landatuko dute bertan. Izeiak 35 eta 40 urte artean zituen. Bere zati bat erabili du udalak Eguberrietako zuhaitza jartzeko udaletxearen aurrean. PATXI RENOBLES

EZAGUTU
WEBGUNE BERRIAK

www.TOLOSALDEA.hitza.info

www.IBARRALDEA.hitza.info

www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info

www.ALEGIALDEA.hitza.info

www.LEITZALDEA.hitza.info

www.ANOETALDEA.hitza.info

www.TOLOSA.hitza.info